

## Langile Autodefentsa Sarea Bilboren aurkezpen-oharra

Bizi dugun krisi ekonomikoari aurre egin eta irabaziak handitzeko helburuz, burgesia gizarteko esparru nagusien berregituraketa sakon bat ari da bultzatzen, langileriaren bizi baldintzei eraso eginez. Beste batzuen artean, agintariak soldata errearen edo eros-ahalmenaren jaitsiera bultzatzen ari dira inflazioaren, egiturazko langabeziaren eta bestelako mekanismoen bitartez. Horren adibide da 2021ean batez besteko soldata %4 hazi den bitartean, KPIa %7,1 eta argindarraren prezioa %62,8 igo izana. Bestalde, langileak modu eraginkorragoan esplotatu ahal izateko oinarria ezartzen ari da klase agintaria: errentagarriak ez diren enpresak itxiz, ekoizpen prozesuaren automatizazioa bultzatuz, eta lan-kontratu mota batzuk orokortuz, besteak beste. Bilbon, esaterako, iazko lan-kontratuaren hamarretik bederatzi behin-behinekoak izan ziren. Nabarmena da proletalgoaren bizi-baldintzak okerrera egiten ari direla, baita lan arloan ere.

Horrez gain, ez dago egoera horri errotik aurre egiteko proposamen politiko eraginkorrik. Ezkerreko alderdi politikoek eta sindikatuek ezin dituzte proletalgoaren interesak errealki defendatu, horrek Estatuarekiko independentziaz jardutea eskatzen baitu. Are gehiago, sozialdemokraziak burgesiaren programa ezartzeko funtzio politikoa betetzen du, azken lan erreformarekin edo beste hainbat neurriekin ikusten ari garen bezala. Zentzu berean, sindikatuek ez dute esplotazio-harremana bera zalantzan jartzen, eta aldiz, baldintza egonkorrenak dituzten langile geruzen soldatak negoziatzeko bitartekoa dira nagusiki. Hau da, klase ertainaren interesak defendatzen dituzte, baina proletalgoa, oro har, haien jardunetik kanpo kokatzen da.

Hala ere, alderdi politiko instituzionalekiko eta sindikatuekiko kontrakotasun hutsa ez da nahikoa proletalgoaren bizi-baldintzen defentsa bitartekoak garatzeko. Horretarako, beharrezkoa da burgesiaren eragite esparruekiko independentziaz eta perspektiba estrategikoz antolatzea. Batetik, gero eta eskala handiagoan antolatzeko gaitasunik gabe ezinezkoa delako testuinguru orokorrari aurre egitea kasu konkretuetatik harago; eta bestetik, estrategia independente bat gorpuztu gabe sozialdemokraziaren behar politikoei erabilgarri izateko etengabeko arriskua dagoelako. Zentzu horretan, muga nabarmenak ditu estrategiarik gabeko autodefentsa talde lokalak sortzeko planteamendu politikoak.

Antolakuntza independente, estrategiko eta integral baten faltan babesgabe aurkitzen da proletalgoa. Gure lan-baldintzen defentsa eta hobekuntza burgesiarekiko indar-harremanaren aldaketa baten ondotik baino ezin da etorri. Horretarako baldintza, ordea, proletalgoak bere interes propioen araberrako gaitasun politikoak metatzea da. Hau da: lan-baldintzen defentsa ere sozialismoaren aldeko borrokari lotuta garatu beharreko auzia da. Zentzu horretan, premiazkoa da soldatapeko lanaren esparruan ere proiektu komunistarekiko atxikimendua handitzea. Izan ere, proletalgoa soldatapeko lanarekiko dependentziak eta desegonkortasun egoerak ezaugarritzen dute, izan lanean dabilenean baldintza prekarioetan aritzeak, edota bestela etengabe lan bila ibili behar izateak. Babesgabetasun egoera horren aurrean, soldatapeko lanaren esparruan defentsa mekanismoak garatu eta antolakuntza komunistak hedatzeko helburuz sortu dugu Langile Autodefentsa Sarea, sozialismoaren aldeko prozesu politiko orokorra elikatzera bidean.